

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzua

Vitoria-Gasteizko Udaleko Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zuzendari nagusiaren jakinarazpena, Vitoria-Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 5ean egindako ohiko bilkuran hartutako erabaki bati buruzkoa; erabaki horren bidez hasierako onespena eman zitzaion Vitoria-Gasteizko HAPOko 54. sektorea -Arangiz industrial- hirigintza-eremua birpartzelatzeko proiektuari

Ezinezkoa izan da Grupo Lexus SL -IFK-B01134774- enpresari helaraztea Vitoria-Gasteizko Udaleko Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zuzendari nagusiak Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 5ean hartu zuen erabaki batekin lotuta bidalitako jakinarazpena, zeinaren bidez hasierako onespena eman zitzaion Vitoria-Gasteizko HAPOko 54. sektorea -Arangiz industrial- hirigintza-eremua birpartzelatzeko proiektuari. Horrenbestez, aipatutako jakinarazpena argitaratzen da, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluekin bat etorritz.

Gaia: Hasierako onespena ematea Vitoria-Gasteizko HAPOko 54. sektorea -Arangiz industrial- birpartzelatzeko proiektuari.

Erabakia

2020ko martxoaren 10ean, REMELEC merkataritza-sozietatearen ordezkariak eta Gasteizko Udalak Arangiz Industrial 54. sektorea gauzatzeko hitzarmena sinatu zuten.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, zeinen bidez COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko alarma egoera deklaritzen baita, eten egin zituen administrazio-tramiteetarako epeak.

Alarma egoera luzatzen duen maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuak bertan behar utzi du ekainaren 1etik aurrera, 463/2020 Errege Dekretuak agindutako prozesu-, administrazio- eta iraungitze-epeen etena.

Hitzarmenak eragindako lursailen jabe bakarrak sektore hori birpartzelatzeko proiektua onesteko eskatu dio Vitoria-Gasteizko udalari, eta, beraz, ez da hitzarmen batzarra eratu beharrik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160.5 artikuluari jarraiki.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriak emateko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak bigarren kapituluan arautzen du birpartzelazioen erregimena, eta 10. artikulua xedatzen duenez, 2/2006 Legean aurreikusitako birpartzelatze-proiektuak abuztuaren 25eko 3.288/1978 Errege Dekretuan —Hirigintza Kudeaketari buruzko Araudia onartzen du— adierazitakoaren arabera onetsiko dira, 11. eta 12. artikuluetan aurreikusitako zehaztapenen kalterik gabe.

Hirigintza Kudeaketarako Araudiaren III. tituluak ("Birzaitzea") xedatzen ditu arau orokorrak, betekizunak, edukia, prozedura orokorra eta laburtua eta birzaitzearen eragina, 71. artikulutik 130. artikulura bitartean.

2019ko maiatzaren 22an, aurkeztutako birpartzelatzeko proiektuari buruzko txosten teknikoa egin zuen udaleko Plangintza eta Hirigintza Kudeaketaren Zerbitzuak, eta proiektua onesteko proposatzen da bertan, aurretik hainbat baldintza betez gero.

Birpartzelatzea formalizatzeko ezartzen diren baldintza formalak alde batera utzita, birpartzelazioa behin betiko onartu ondoren, txosten horrek ezartzen du hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan komunitateak izango duen partaidetzaren kuantifikazioa, eta zenbateko hori Udal Diruzaintzan sartu beharko da, Udal Lurzoru Ondararako, birpartzelazioa behin betiko onartu aurretik.

Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 124. eta 127. artikuluetan aurreikusitako eskumenak baliaturik, eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko ekainaren 21eko akordioaren bidez, Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkariak erabaki proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

1. Hasierako onespina ematea 54. sektoreko –Arangiz industrial– hirigintza-eremua birpartzelatzeko proiektuari.

2. Probidentzia hau ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarriko da, jabe bakarraren kontura, eta hilabetez ikusgai egongo da proiektua udal bulegoetan –Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea, Gasteiz– nahi duenak azter dezan, eta inork egoki baderitzo, erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Erabaki honen berri ematea dossierrean ageri diren interesdunei, eta ebatzi beharrekoen atalean aipatutako txosten teknikoa eranstea.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 16an

Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren zuzendari nagusia
MIGUEL ANGEL GARCÍA-FRESCA FRÍAS